# Urteko 30. Igandea B

## 125. Salmoa

*L.a. 61 / S.a. 21*




**Handizki gaitu Jaunak lagundu :**
**hara non garen bozkariatzen**.

Preso zirenak baititu Jaunak erakarri,
Gu ginen kasik ametsetan.
Ahoa zabal ginauden oro dena irri,
Kantu soinuak ezpainetan.

Bertze jendeek egiten zuten so elgarri :
" Ari da Jauna heien baitan."
Handizki dauku Jaunak eskua eman guri :
Hara non garen lorietan.

Eman zuk, Jauna, gure jendean indar berri :
Urek bezala mortuetan.
Nigar-hipetan joaten direnak ereilari,
Uzta bilari lorietan.

Haratekoan harat doatzi pleinuz ari,
Hazi-bihiak eskuetan.
Hunatekoan hunat datortzi kantuz ari,
Espal ederrak eskuetan.

Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.
Tout droit propriété de l'abbaye de Belloc